**EGOITZAK 2026 – PRAKTIKA KRITIKOEN PROGRAMAREN DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**

***Lehenengoa.- Deialdiaren xedea***

Bilbao Gazte STEAM Estrategia gazteen talentuari laguntzera bideratuta dago, berrikuntza, sorkuntza, profesionalizazioa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko baliabideak eta programak eskainiz. Bada, estrategia horren barruan, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak Egoitzak 2026 – Praktika kritikoak programa bultzatzen du.

Deialdiaren helburua da teknologiak gaur egungo gizartean duen zeregina modu kritikoan aztertuko duten sorkuntza-, ikerketa- eta ekoizpen-proiektuen garapena babestea.

Era berean, La Perrera – Makergune ekipamenduko baliabideak eta espazioak eta robotikako, ikus-entzunezko eta adimen artifizialeko laborategiak aktibatuko dituzten proposamenak hautatu nahi dira deialdi honen bidez, ikuspegi artistiko, esperimental eta sozialki konprometitu batetik, pentsamendu kritikoa, berrikuntza kokatua, elkarlana eta ezagutzaren transferentzia integratzen dituzten prozesuak bultzatuz.

Egoitzak honako ikuspegi hauetako batekin edo batzuekin lotutako proiektuetara bideratzen dira bereziki:

- *Slow Tech,* teknologiarekiko harreman kontzienteagoa, jasangarriagoa, iraunkorragoa eta arduratsuagoa.
- *Critical Making,* egitea eta pentsatzea uztartzea, prototipoak egitea eta zalantzan jartzea, ekoiztea eta problematizatzea.
- *Etorkizun etikoak*, eszenatoki bidezkoagoak, inklusiboagoak, jasangarriagoak eta demokratikoagoak imajinatzera eta saiatzera bideratuak.

***Bigarrena.– Deialdiaren helburuak***

Deialdi honen bidez, Bilboko Udalak helburu hauek ditu:

**BASES QUE RIGEN LA CONVOCATORIA DEL PROGRAMA RESIDENCIAS 2026 – PRÁCTICAS CRÍTICAS**

***Primera.– Objeto de la convocatoria***

En el marco de la Estrategia Bilbao Gazte STEAM, orientada a apoyar el talento de las personas jóvenes mediante la oferta de recursos y programas que fomenten la innovación, la creación, la profesionalización y el pensamiento crítico, el Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao impulsa el programa Residencias 2026 – Prácticas críticas.

La convocatoria tiene como objetivo respaldar el desarrollo de proyectos de creación, investigación y producción que exploren de manera crítica el papel de la tecnología en la sociedad contemporánea.

Asimismo, la convocatoria busca seleccionar propuestas que activen los recursos y espacios del equipamiento La Perrera –Makergune y Laboratorios de Robótica, Audiovisuales e Inteligencia Artificial– desde una perspectiva artística, experimental y socialmente comprometida, favoreciendo procesos que integren pensamiento crítico, innovación situada, trabajo colaborativo y transferencia del conocimiento.

Las residencias se orientan especialmente a proyectos vinculados con uno o varios de los siguientes enfoques:

- *Slow Tech*, entendida como una relación más consciente, sostenible, duradera y responsable con la tecnología.
- *Critical Making*, como la articulación entre hacer y pensar, prototipar y cuestionar, producir y problematizar.
- *Futuros éticos*, orientados a imaginar y ensayar escenarios más justos, inclusivos, sostenibles y democráticos.

***Segunda.– Objetivos de la convocatoria***

Mediante la presente convocatoria, el Ayuntamiento de Bilbao tiene como finalidad:

- Teknologia garaikideei buruzko begirada kritikoa duten arte- eta ikerketa-prozesuak babestea.
- Proiektu berritzaileak garatzeko baliabide teknikoak, espazialak eta lagun egitekoak eskuratzeko aukera ahalbidetzea.
- Artisten, makerren, ikertzaileen, kultura-eragileen, komunitateen eta mentore espezializatuen arteko loturak eta lankidetza-sareak sortzea sustatzea.
- Eztabaida publikoa sortzeko, pentsamendu kritikoa aktibatzeko eta gizarte-itzulkina sortzeko gaitasuna duten proiektuak bultzatzea.
- La Perrerako ekipamendua sendotzea esperimentazio artistiko eta teknologikorako erreferentzia-espazio gisa, bertako ekosistemarekin konektatuta eta lankidetza-prozesuetara eta ezagutza transferitzeko prozesuetara irekita.

- Apoyar procesos artísticos y de investigación que incorporen una mirada crítica sobre las tecnologías contemporáneas.
- Facilitar el acceso a recursos técnicos, espaciales y de acompañamiento para el desarrollo de proyectos innovadores.
- Fomentar la creación de vínculos y redes de colaboración entre artistas, personas makers, investigadoras, agentes culturales, comunidades y mentores/as especializados/as.
- Impulsar proyectos con capacidad de generar debate público, activar el pensamiento crítico y producir retorno social.
- Consolidar el equipamiento de La Perrera como un espacio de referencia para la experimentación artística y tecnológica, conectado con su ecosistema local y abierto a procesos colaborativos y de transferencia de conocimiento.

**Hirugarrena.** ***– Egoitzen kopurua eta iraupena***

Deialdi honetan bi (2) proiektu hautatuko dira. Egoitza bakoitzak hiru (3) hilabeteko iraupena izango du, eta 2026ko urritik abendura bitartean garatuko da.

***Tercera.– Número y duración de las residencias***

La convocatoria seleccionará dos (2) proyectos. Cada residencia tendrá una duración de tres (3) meses y se desarrollará entre octubre y diciembre de 2026.

**Laugarrena.*– Proiektu-motak eta eremuak***

Sorkuntza-, ikerketa- edo ekoizpen-proposamenak aurkeztu ahal izango dira, besteak beste, honako lan-eremu eta -tipologia hauetan, betiere ikuspegi kritiko eta esperimental batetik:

- Artea eta teknologia, teknologia garaikideen erabilerekin, hizkuntzekin eta inpaktuekin lotuta.
- Diseinu espekulatiboa eta diseinu kritikoa, gogoeta egiteko, aurrea hartzeko eta agertoki teknologiko eta sozialak zalantzan jartzeko.
- Fabrikazio digitala ikuspegi kritikotik, prototipoak egiteko prozesuak, esperimentazio materiala eta hausnarketa kontzeptuala barne hartzen dituena.

***Cuarta.– Ámbitos y tipologías de proyectos***

Podrán presentarse propuestas de creación, investigación o producción que se sitúen, entre otros, en los siguientes ámbitos y tipologías de trabajo, siempre desde una perspectiva crítica y experimental:

- Arte y tecnología, en diálogo con los usos, lenguajes e impactos de las tecnologías contemporáneas.
- Diseño especulativo y diseño crítico, orientados a la reflexión, la anticipación y el cuestionamiento de escenarios tecnológicos y sociales.
- Fabricación digital desde una perspectiva crítica, que integre procesos de prototipado, experimentación material y reflexión conceptual.

- Maker kultura, ikuspegi sozial eta komunitarioarekin, praktika kolaboratibo, ireki eta kokatuei lotua.
- Berrikuntza soziala eta teknologikoa, ikuspegi kritiko, arduratsuetatik ulertuta.
- Ikerketa artistiko aplikatua, praktika, pentsamendua eta esperimentazioa uztartzen dituena.
- Oinarri teknologikoko ikus-entzunezko praktikak, soinudunak edo performatiboak, edozein formatutan.
- Gailu, tresna, metodologia edo instalazio fisiko edo digitalen prototipoak egitea.
- Bitartekaritza, pedagogia esperimentala edo aktibazio komunitarioa, teknologiaren, gizartearen eta kulturaren arteko harremanen inguruan.

Era berean, programaren helburuekin eta praktika kritikoen esparruarekin bat etorriz, arreta berezia jarriko zaie proiektu hauei, baldin eta:

- Zalantzan jartzen badituzte berrikuntzari eta aurrerapen teknologikoari lotutako irudideria teknologiko nagusiak eta diskurtso hegemonikoak.
- Modu kritikoan lantzen badituzte ekologia, gizarte, lan edo teknologia-inpaktuak gaur egungo gizartean.
- Konponketako, berrerabilpeneko, inpaktu txikiko edo jasangarritasun materialeko logikak oinarri hartuta lan egiten badute, ardura- eta zaintza-irizpideei eta baliabideak kontzienteki erabiltzeko irizpideei jarraikiz.
- Formatu irekiak, parte-hartzekoak edo ezagutza transferitzekoak proposatzen badituzte, prozesuen, ikaskuntzen eta emaitzen zirkulazio publikoa erraztuz.
- Ikuspegi feminista, dekolonial, inklusibo, intersekzional edo justizia sozialeko ikuspegietatik artikulatzen badira, ikuspegi inklusiboak, lekutuak eta askotarikoak sustatuz.

- Cultura maker con enfoque social y comunitario, vinculada a prácticas colaborativas, abiertas y situadas.
- Innovación social y tecnológica, entendida desde enfoques críticos, responsables y contextualizados.
- Investigación artística aplicada, que combine práctica, pensamiento y experimentación.
- Prácticas audiovisuales, sonoras o performativas con base tecnológica, en cualquiera de sus formatos.
- Prototipado de dispositivos, herramientas, metodologías o instalaciones, físicas o digitales.
- Mediación, pedagogía experimental o activación comunitaria, en torno a las relaciones entre tecnología, sociedad y cultura.

Asimismo, en coherencia con los objetivos del programa y con el marco de Prácticas críticas, se prestará especial atención a proyectos que:

- Cuestionen los imaginarios tecnológicos dominantes y los discursos hegemónicos asociados a la innovación y al progreso tecnológico.
- Aborden de manera crítica los impactos ecológicos, sociales o laborales o de la tecnología en la sociedad contemporánea.
- Trabajen desde lógicas de reparación, reutilización, bajo impacto o sostenibilidad material, atendiendo a criterios de responsabilidad, cuidado y uso consciente de los recursos.
- Propongan formatos abiertos, participativos o de transferencia de conocimiento, favoreciendo la circulación pública de procesos, aprendizajes y resultados.
- Se articulen desde perspectivas feministas, decoloniales, anticapacitistas, interseccionales o de justicia social, promoviendo enfoques inclusivos, situados y diversos.

*Bosgarrena.– Hartzaileak*

Deialdia sorkuntza garaikidearekin, ikerketa artistikoarekin, diseinuarekin, maker kulturarekin edo antzeko esparruekin lotutako 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago (banaka zein taldeka).

Besteak beste, honako profil hauek aurkeztu ahal izango dira: artistak, diseinatzaileak, teknologoak, ikertzaileak, bitartekariak, arkitektoak, pentsalariak, kultura-aktibistak, bai eta hainbat diziplina eta ezagutza-eremuren artean diharduten profil hibridoak ere.

*Quinta.– Personas destinatarias*

La convocatoria está dirigida a personas jóvenes de entre 18 y 35 años vinculadas a la creación contemporánea, la investigación artística, el diseño, la cultura maker o ámbitos afines, que desarrollen su práctica de forma individual o colectiva.

Podrán presentarse, entre otros perfiles, artistas, diseñadores/as, tecnólogos/as, investigadores/as, mediadores/as, arquitectos/as, pensadores/as, activistas culturales, así como perfiles híbridos que trabajen en la intersección entre distintas disciplinas y campos de conocimiento.

*Seigarrena.– Egoitzaren baliabideak eta laguntzak*

Hautatutako pertsonek edo kolektiboek baliabide eta laguntza hauek izango dituzte egoitza-aldian:

- Lan-espazioa La Perrera ekipamenduan (Sabino Arana, 50 – Basurtu); espazio hori hautatutako proiektuaren izaeraren, espazio-disponibilitatearen eta zentroaren funtzionamendu orokorraren arabera esleituko zaie.
- Makerguneko, robotika-laborategiko, ikus-entzunezko eta adimen artifizialeko espazioetako makinak, tresnak eta azpiegiturak erabiltzeko aukera, bai eta ekipamenduan eskuragarri dauden beste baliabide tekniko batzuk ere, betiere erabilerari, segurtasunari eta erreserbari buruzko arauen eta ezarritako laguntza teknikoko baldintzen arabera.
- La Perrerako langileen eta, hala badagokio, profesional edo eragile laguntzaileen orientazio artistikoa, teknikoa eta metodologikoa proiektua garatzen duten bitartean.
- Mentoretza espezializatua, hautatutako proiektu bakoitzaren behar espezifikoetara eta ezaugarrietara egokitua.
- Proiektu bakoitzeko 1.500 euroko laguntza ekonomikoa, egoitzan parte hartzeagatik,

*Sexta.– Recursos y apoyos de la residencia*

Las personas o colectivos seleccionados dispondrán, durante el periodo de residencia, de los siguientes recursos y apoyos:

- Espacio de trabajo en el equipamiento La Perrera (Sabino Arana, 50 – Basurto), asignado de acuerdo con la naturaleza del proyecto seleccionado, la disponibilidad de los espacios y el funcionamiento general del centro.
- Acceso a la maquinaria, herramientas e infraestructuras del Makergune, del Laboratorio de Robótica, de los espacios de Audiovisuales e Inteligencia Artificial, así como a otros recursos técnicos disponibles en el equipamiento, siempre conforme a las normas de uso, seguridad, reserva y a las condiciones de acompañamiento técnico establecidas.
- Orientación artística, técnica y metodológica a lo largo del desarrollo del proyecto, a cargo del equipo de La Perrera y, en su caso, de profesionales o agentes colaboradores.
- Mentoría especializada, ajustada a las necesidades específicas y a las características de cada proyecto seleccionado.
- Una ayuda económica de 1.500 euros por proyecto, en concepto de compensación por la participación en la residencia, en los

zazpigarren oinarrian ezarritako moduan eta baldintzetan.

- Proiektuaren eta haren mugarri nagusien hedapen instituzionala, Bilbao Gazteren webgunearen eta sare sozialen bidez, bai eta Bilboko Udalaren beste komunikazio-kanal egoki batzuen bidez ere.

**Zazpigarrena.–** ***Parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoa***

Hautatutako pertsonek edo kolektiboek 1.500 euroko laguntza ekonomikoa izango dute, proiektua garatzen laguntzeko.

Laguntza hori puntuala da, eta ez ordainketa-izaerakoa. Ez da ez soldatatzat ez ordainsari profesionaltzat jotzen, eta ez da deialdia egin duen erakundearentzat ez ekipamendua kudeatzen duen erakundearentzat emandako zerbitzuen ondorio.

Laguntza jasotzeak ez du inola ere ekarriko lan-, kontratu- edo lanbide-harremanik egotea Bilboko Udalarekin, ez eta ekipamendua kudeatzen duen erakundearekin ere, eta ez da hartuko zerbitzuak emateagatiko ordainsaritzat edo enkargu profesionalagatiko kontraprestazio ekonomikotzat.

***Zortzigarrena.- Espazioak eta makineria/erremintak erabiltzeko baldintzak***

Egoiliarrek La Perrera ekipamenduko espazioak, makinak eta erremintak erabiltzeko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Espazioen erabilera (Maker Gunea, Konekta aretoa, bilera-gelak, robotika-laborategia, ikus-entzunezkoen + AA espazioak eta podcast-aretoa) disponibilitatearen araberakoa izango da eta zentroaren funtzionamendu orokorraren eta jardueren ohiko programazioaren mende egongo da.
- Tresna, ekipo edo makina jakin batzuk erabiltzeko, nahitaezkoa izango da aldez aurretik Gazteria eta Kirol Sailak ezartzen dituen prestakuntza edo gaikuntza

términos y condiciones establecidos en la base séptima.

- Difusión institucional del proyecto y de sus principales hitos, a través de la página web y las redes sociales de Bilbao Gazte, así como de otros canales de comunicación del Ayuntamiento de Bilbao que se consideren adecuados.

***Séptima.– Compensación económica por la participación***

Las personas o colectivos seleccionados dispondrán de una ayuda económica de 1.500 euros, en concepto de bolsa de apoyo al desarrollo del proyecto.

Dicha ayuda tiene carácter puntual y no remuneratorio, no constituye salario ni honorarios profesionales, y no deriva de la prestación de servicios para la entidad convocante ni para la entidad gestora del equipamiento.

La percepción de la ayuda no implicará en ningún caso la existencia de relación laboral, contractual o profesional con el Ayuntamiento de Bilbao ni con la entidad gestora del equipamiento, ni tendrá la consideración de remuneración por prestación de servicios o de contraprestación económica por encargo profesional.

***Octava.- Condiciones de uso de espacios y maquinaria/herramientas***

El acceso y uso de los espacios, maquinaria y herramientas del equipamiento La Perrera por parte de las personas residentes estará sujeto a las siguientes condiciones:

- El uso de los espacios —Maker Gunea, sala Konekta, salas de reuniones, laboratorio de robótica, espacios de Audiovisuales + IA y sala de pódcast— estará condicionado a su disponibilidad, al funcionamiento general del centro y a la programación ordinaria de actividades.
- Para la utilización de determinadas herramientas, equipos o maquinaria, será obligatorio haber realizado previamente las formaciones o habilitaciones

espezifikoak eginda izatea, baliabideen erabilera autonomoa, arduratsua eta segurua bermatzearren.

- Egoiliarrek une oro errespetatu beharko dituzte La Perrerako espazioak eta ekipamenduak erabiltzeko ezarritako barne-arauak, segurtasun-protokoloak, irizpide teknikoak eta funtzionamendu-baldintzak.
- Hautatutako proiektuak teknikoki bateragarriak izango dira zentroan eskuragarri dauden baliabide, espazio eta ekipamenduekin.

Espazioen, ekipoen eta materialen erabilera haien eskuragarritasunaren, baldintza teknikoen eta ekipamenduaren segurtasun- eta funtzionamendu-irizpideen arabera egingo da beti.

Egoitzak La Perrerako ohiko baliabideetarako sarbidea eskaintzen du, erabilera arduratsua eta espazioaren aukera tekniko eta materialetara egokitutakoa bultzatuz, baina horrek ez du esan nahi materialak mugarik gabe hornitu behar direnik, ezta aparteko premia teknikoak estali behar direnik ere.

**Bederatzigarrena.-** ***Parte hartzeko betekizunak***

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute betekizun hauek betetzen dituzten pertsonek edo kolektiboek:

- Bilbon bizitzea edo hiriarekin lotura izatea. Proiektu kolektiboen kasuan, gutxienez kideetako batek Bilbon bizi beharko du, eta taldeak ordezkari bat izendatu beharko du, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailaren aurrean solaskide gisa jardungo duena.
- Proiektu bakarra aurkeztea pertsona edo kolektibo bakoitzeko.
- Ezarritako aldian La Perrera ekipamenduan egoitza modu presentzialean garatzeko disponibilitatea eta gaitasuna izatea.
- Eskabidean adierazitako materialak, irudiak, prototipoak edo edukiak norberaren egiletzakoak direla edo horiek erabiltzeko behar diren eskubideak,

específicas que establezca el Área de Juventud y Deporte, con el fin de garantizar un uso autónomo, responsable y seguro de los recursos.

- Las personas residentes deberán respetar en todo momento las normas internas, los protocolos de seguridad, los criterios técnicos y las condiciones de funcionamiento establecidos por La Perrera para el uso de sus espacios y equipamientos.
- Los proyectos seleccionados deberán ser técnicamente compatibles con los recursos, espacios y equipamientos disponibles en el centro.

El uso de los espacios, equipos y materiales se realizará siempre de acuerdo con su disponibilidad, las condiciones técnicas existentes y los criterios de seguridad y funcionamiento del equipamiento.

La residencia ofrece acceso a los recursos habituales de La Perrera, favoreciendo un uso responsable y ajustado a las posibilidades técnicas y materiales del espacio, sin que ello suponga la provisión ilimitada de materiales ni la cobertura de necesidades técnicas extraordinarias.

***Novena.– Requisitos de participación***

Podrán participar en la presente convocatoria las personas o colectivos que cumplan los siguientes requisitos:

- Residir en Bilbao o mantener una vinculación con la ciudad. En el caso de proyectos colectivos, al menos una de las personas integrantes deberá residir en Bilbao y el grupo deberá designar a una persona representante que actuará como interlocutora ante el Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao.
- Presentar un único proyecto por persona o colectivo solicitante.
- Contar con la disponibilidad y capacidad necesarias para desarrollar la residencia de forma presencial en el equipamiento La Perrera durante el periodo establecido.
- Garantizar que los materiales, imágenes, prototipos o contenidos incluidos en la

lizentziak edo baimenak daudela bermatzea.

- Oinarri hauek eta deialdia arautzen duten baldintzak oso-osorik onartzea.

Dagoeneko amaituta dauden proiektuak ez dira onartuko, ezta La Perrera ekipamenduak eskainitako espazioekin, tresnekin edo laguntzarekin lotura eraginkorrik behar ez duten proposamenak ere.

solicitud son de autoría propia, o bien que se dispone de los derechos, licencias o autorizaciones necesarias para su utilización.

- Aceptar íntegramente las presentes bases y las condiciones que rigen la convocatoria.

No serán admitidos proyectos ya finalizados, ni propuestas cuyo desarrollo no requiera una vinculación efectiva con los espacios, herramientas o el acompañamiento ofrecidos por el equipamiento La Perrera.

***Hamargarrena.– Izena emateko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.***

Deialdi honetan izena emateko epea 2026ko maiatzaren 12tik ekainaren 10era egongo da irekita, biak barne.

Izena emateko, izena emateko fitxa behar bezala beteta (https://bilbaogazte.bilbao.eus web-orrialdean dago eskuragarri) gazteria@bilbao.eus helbide elektronikora bidali beharko da. Agiri hauek ere erantsi beharko dira:

- Proiektuaren dosierra: fitxategi bakarra aurkeztu beharko da PDF formatuan, gehienez ere 30 lerrokoa, informazio hau jasotzen duena:
    - Proiektuaren titulua.
    - Laburpena.
    - Kontzeptuen deskribapena eta helburuak.
    - Proiektuak deialdiaren praktika kritikoen esparruarekin duen lotura.
    - Metodologia eta lan-plana.
    - Premia espazialak, teknikoak eta materialak.
    - Itzulera publikorako eta/edo ezagutzaren transferentziarako proposamena.
    - Gutxi gorabeherako garapen-egutegia.
    - Aurrekontuaren kalkulua, gastu-kontzeptu nagusiak zehaztuta.

***Décima.– Documentación a presentar y plazo de solicitud***

El plazo de inscripción para participar en la presente convocatoria permanecerá abierto del 12 de mayo al 10 de junio de 2026, ambos inclusive.

La inscripción deberá realizarse mediante el envío de la ficha de inscripción debidamente cumplimentada y accesible a través de la página web https://bilbaogazte.bilbao.eus a la dirección de correo electrónico gazteria@bilbao.eus, acompañada de la siguiente documentación:

- Dossier del Proyecto: se deberá presentar un único archivo en formato PDF, con una extensión máxima de 30 líneas en total, que incluya la siguiente información:
    - Título del proyecto.
    - Breve resumen.
    - Descripción conceptual y objetivos.
    - Relación del proyecto con el marco de Prácticas críticas de la convocatoria.
    - Metodología y plan de trabajo.
    - Necesidades espaciales, técnicas y materiales.
    - Propuesta de retorno público y/o transferencia de conocimiento.
    - Calendario orientativo de desarrollo.
    - Presupuesto estimado, detallando los principales conceptos de gasto.

- Eskatzailearen ibilbide eta garapen profesionala islatzen duen Curriculum Vitaea eta/edo Biografia. Proiektu kolektiboen kasuan, kide bakoitzaren curriculuma eta/edo biografia aurkeztu beharko dira.
- Aurretiazko lanen portfolioa edo dokumentazioa, gehienez 15 orrialde edo online edukietarako estekak dituena.

Erakundeak eskubidea izango du dokumentazio osagarria eskatzeko, baldin eta beharrezkotzat jotzen badu proposamenak behar bezala ebaluatzeko eta baloratzeko.

Proiektuak originalak izango dira, eta eskatzaileen erantzukizuna izango da originaltasun hori bermatzea. Era berean, parte-hartzaileak arduratuko dira aurkeztutako proposamenek jabetza intelektualeko eskubideak urratzen ez dituztela eta hirugarrenen egile-eskubideak urratzen ez dituztela ziurtatzeaz.

- CV y/o Biografía en el que se refleje el recorrido y desarrollo profesional de la persona solicitante.En el caso de proyectos colectivos, deberá presentarse el CV y/o biografía de cada una de las personas integrantes.
- Portfolio o documentación de trabajos previos, con una extensión máxima de 15 páginas o enlaces a contenidos on-line.

La organización se reserva el derecho de solicitar documentación complementaria si lo considera necesario para una correcta evaluación y valoración de las propuestas.

Los proyectos deberán ser originales, siendo responsabilidad exclusiva de las personas solicitantes garantizar dicha originalidad. Asimismo, las personas participantes serán responsables de asegurar que las propuestas presentadas no infringen derechos de propiedad intelectual ni vulneran derechos de autor de terceras personas.

**Hamaikagarrena.–** ***Balorazio-batzordea eta -irizpideak***

Hautaketa-batzorde batek baloratuko ditu proiektuak. Batzorde hori La Perrera ekipamendua kudeatzen duen erakundeko teknikariek eta Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Saileko teknikariek osatuko dute. Era berean, batzordeak, egokitzat jotzen badu, deialdiaren gaiekin lotutako kanpoko adituen aholkularitza eduki ahal izango du.

Hautaketa-batzordeak aurre-hautaketako fase bat egin ahal izango du, eta, beharrezkotzat jotzen badu, elkarrizketak egin ahal izango ditu proiektu finalisten pertsona edo kolektibo arduradunekin, aurkeztutako informazioa zabaltzeko edo erkatzeko.

Hautaketa-batzordeak ebatziko du deialdia, eta haren epaitza apelaezina izango da.

Proiektuak irizpide hauen arabera baloratu eta hautatuko dira:

- proposamenaren kalitate kontzeptuala, artistikoa eta kritikoa;

***Decimoprimera.– Comisión y criterios de valoración***

Los proyectos presentados serán valorados por una comisión de selección integrada por personal técnico de la entidad gestora del equipamiento La Perrera y por personal técnico del Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao. Asimismo, la comisión podrá contar, si lo estima oportuno, con el asesoramiento de personas expertas externas vinculadas a los ámbitos de la convocatoria.

La comisión de selección podrá realizar una fase de preselección y, en caso de considerarlo necesario, convocar entrevistas con las personas o colectivos responsables de los proyectos finalistas, con el fin de ampliar o contrastar la información presentada.

La resolución de la convocatoria será adoptada por la comisión de selección y su fallo tendrá carácter inapelable.

La valoración y selección de los proyectos se realizará atendiendo al conjunto de los siguientes criterios:

- calidad conceptual, artística y crítica de la propuesta;

- deialdiaren xedeari zenbateraino egokitzen zaion;
- Slow Tech, Critical Making eta/edo Etorkizun Etikoen ikuspegiekin eta antzekoekin duten lotura;
- proiektuaren esperimentazio-, berrikuntza- eta berezitasun-maila;
- bideragarritasun teknikoa, espaziala eta denborazkoa, La Perrera ekipamenduko baliabideei eta baldintzei dagokienez.
- pertsona edo kolektibo eskatzailearen ibilbidea, sendotasuna edo garatzeko ahala, aurkeztutako proposamenari dagokionez;
- proiektuak inguruneko ekosistema kultural, teknologiko edo sozialarekin konexioak sortzeko duen gaitasuna.

Deialdia hutsik utzi ahal izango da, inori eman gabe, baldin eta aurkeztutako proiektuetako batek ere ez baditu betetzen, batzordearen irizpidearen arabera, hautatua izateko eskatzen diren baldintzak, edo haren balorazioa ez bada nahikoa.

- adecuación al objeto de la convocatoria;
- vinculación con los enfoques de Slow Tech, Critical Making y/o Futuros éticos, así como con otros enfoques afines;
- grado de experimentación, innovación y singularidad del proyecto;
- viabilidad técnica, espacial y temporal en relación con los recursos y condiciones del equipamiento La Perrera;
- trayectoria, solidez o potencial de desarrollo de la persona o colectivo solicitante, en relación con la propuesta presentada;
- capacidad del proyecto para generar conexiones con el ecosistema cultural, tecnológico o social del entorno.

La convocatoria podrá ser declarada desierta, si ninguno de los proyectos presentados reúne, según el criterio de la comisión, los requisitos exigidos para su selección o si su valoración resulta insuficiente.

**Hamabigarrena.– *Hautatutako pertsonen betebeharrak***

Egoitzak 2026 – Praktika kritikoak programan parte hartzeko hautatutako pertsonek edo kolektiboek betebehar hauek izango dituzte:

- hautatutako proiektua ezarritako egoitza-aldian garatzea, aurkeztutako proposamenaren eta deialdi honetan jasotako baldintzen arabera;
- La Perrera ekipamenduko espazioan presentzia aktiboa izatea eta espazio horiek benetan erabiltzea, proiektuaren izaeraren, irismenaren eta premien arabera;
- erakundeak egoitza-prozesuan zehar deitzen dituen jarraipen-, laguntza- eta mentoretza-bileretan parte hartzea;
- zentroaren erabilera-, bizikidetza- eta segurtasun-arauak errespetatzea, bai eta La Perrera ekipamenduak ezarritako

***Decimosegunda.– Obligaciones de las personas seleccionadas***

Las personas o colectivos seleccionados para participar en el programa Residencias 2026 – Prácticas críticas deberán cumplir las siguientes obligaciones:

- desarrollar el proyecto seleccionado durante el periodo de residencia establecido, conforme a la propuesta presentada y a las condiciones recogidas en la presente convocatoria;
- mantener una presencia activa y un uso efectivo de los espacios del equipamiento La Perrera, de acuerdo con la naturaleza, alcance y necesidades del proyecto;
- participar en las reuniones de seguimiento, acompañamiento y mentoría que convoque la organización a lo largo del proceso de residencia;
- respetar las normas de uso, convivencia y seguridad del centro, así como los

funtzionamendu-protokoloak eta -irizpideak ere;

- proiektuaren komunikazio publiko guztietan berariaz aipatzea Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak La Perrera ekipamenduan (Sabino Arana, 50 – Basurtu) sustatutako egoitza dela, ematen diren identitate bisualeko jarraibideen arabera;
- azken memoria bat entregatzea, zehazten den epean eta formatuan. Memoria horretan, proiektuaren garapena, ikaskuntza nagusiak eta egoitzan egindako prozesuaren oinarrizko dokumentazioa jasoko dira.
- gutxienez, itzulerako jarduera publiko batean parte hartzea. Jarduera hori izan daiteke aurkezpena, elkarrizketa, tailerra, prozesua erakustea, prototipo irekia, argitalpena, aktibazioa edo antzeko beste formatu bat. Zein izango den aldez aurretik adostuko da antolatzaileekin, eta ez du zerbitzu-prestazioaren izaerarik izango.

protocolos y criterios de funcionamiento establecidos por el equipamiento La Perrera;

- incluir en toda comunicación pública del proyecto una mención expresa a la residencia impulsada por el Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao en La Perrera (Sabino Arana, 50 – Basurto), de acuerdo con las indicaciones de identidad visual que se faciliten;
- entregar una memoria final, en el plazo y formato que se determine, en la que se recoja el desarrollo del proyecto, los principales aprendizajes y una documentación básica del proceso llevado a cabo durante la residencia.
- participar en, al menos, una actividad pública de retorno, que podrá adoptar la forma de presentación, conversación, taller, muestra de proceso, prototipo abierto, publicación, activación u otro formato equivalente, acordado previamente con la organización, sin carácter de prestación de servicios.

**Hamahirugarrena.–** ***Jabetza intelektuala eta erabilera-eskubideak***

Deialdi honen esparruan garatutako proiektuen jabetza intelektuala egileei dagokie, betiere, jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Hautatutako pertsonek edo kolektiboek baimena ematen diote Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailari proiektuaren dokumentaziotik eratorritako irudiak, testuak, bideoak eta bestelako materialak erabiltzeko, Egoitzak 2026 – Praktika kritikoak deialdiarekin lotutako artxibo, komunikazio eta zabalkunde helburuetarako soilik, betiere ustiapen komertzialerako asmorik gabe eta egiletza berariaz aipatuta.

Bestelako erabilerek, edo programaren edo deialdiaren hedapenarekin zuzenean lotuta ez dauden erabilerek, egileen berariazko eta aurretiazko baimena beharko du.

***Decimotercera.– Propiedad intelectual y derechos de uso***

La propiedad intelectual de los proyectos desarrollados en el marco de la presente convocatoria corresponderá, en todo caso, a sus autores y autoras, de conformidad con la normativa vigente en materia de propiedad intelectual.

Las personas o colectivos seleccionados autorizan al Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao a utilizar imágenes, textos, vídeos y otros materiales derivados de la documentación del proyecto, exclusivamente con fines de archivo, comunicación y difusión vinculados a la convocatoria Residencias 2026 – Prácticas crítica, siempre sin ánimo de explotación comercial y citando expresamente la autoría.

Cualquier uso distinto de los anteriores, o no directamente vinculado a la difusión del programa o de la convocatoria, requerirá la autorización expresa y previa de las personas autoras.

***Hamalaugarrena.– Datuen babesa***

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak deialdi hau, proiektuak hautatzeko prozesua eta Egoitzak 2026 – Praktika kritikoak programaren garapenetik eratorritako ekintzak kudeatzeko baino ez dira erabiliko, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera.

Datuen tratamendua Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da, eta emandako informazioaren konfidentzialtasuna, segurtasuna eta osotasuna bermatuko dira une oro.

***Decimocuarta.– Protección de datos***

Los datos personales facilitados por las personas participantes serán tratados exclusivamente para la gestión de la presente convocatoria, el proceso de selección de proyectos y las acciones derivadas del desarrollo del programa Residencias 2026 – Prácticas críticas, de conformidad con la normativa vigente en materia de protección de datos personales.

El tratamiento de los datos se realizará conforme a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679, General de Protección de Datos (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, garantizándose en todo momento la confidencialidad, seguridad e integridad de la información facilitada.

**Hamabosgarrena.–** ***Oinarriak onartzea***

Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du bertan ezarritako oinarriak eta baldintzak osorik onartzen direla.

Pertsona edo talde eskatzaileek, eskabidea aurkezte hutsagatik, adierazten dute ezagutzen eta onartzen dituztela oinarri hauen edukia eta, hala badagokio, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak deialdia behar bezala garatzeko eman ditzakeen ebazpenak eta jarraibideak.

***Decimoquinta.– Aceptación de las bases***

La participación en la presente convocatoria supone la aceptación íntegra de las bases y de las condiciones establecidas en las mismas.

Las personas o colectivos solicitantes, por el mero hecho de presentar su solicitud, declaran conocer y aceptar el contenido de estas bases, así como las resoluciones e instrucciones que, en su caso, pueda dictar el Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao para el adecuado desarrollo de la convocatoria.

**Hamaseigarrena.-** ***Aurreikusi gabeko gorabeherak eta egoerak***

Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gorabehera edo egoera konpontzeko, bai eta egutegian edo programaren garapenean aldaketa justifikatuak egiteko ere, antolaketa-arrazoiak, arrazoi teknikoak edo ezinbesteko arrazoiak daudenean.

Aldaketa horiek ez dute deialdiaren izaera edo funtsezko helburuak aldatuko, eta behar bezala jakinaraziko zaizkie hautatutako pertsonei edo kolektiboei.

***Decimosexta.- Incidencias y situaciones no previstas***

El Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao se reserva la facultad de resolver cualquier incidencia o situación no prevista en las presentes bases, así como de introducir modificaciones justificadas en el calendario o en el desarrollo del programa cuando concurran causas organizativas, técnicas o de fuerza mayor.

Dichas modificaciones no alterarán la naturaleza ni los objetivos fundamentales de la convocatoria y serán debidamente comunicadas a las personas o colectivos seleccionados.